

**Gipuzkoako  
Aldizkari  
Ofiziala****Boletín  
Oficial de  
Gipuzkoa****58**

2018ko martxoaren 22a, osteguna

**1****GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*121/2018 Foru Agindua, martxoaren 15ekoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ordainketa zatikatuak egiteko prozedurak ezarri, eta ordainketa zatikatua autolikidatzeko 130 eredu eta ordainketa hori helbideratzeko 005 eredu onartzen dituena.*

2015. urteaz geroztik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan egin behar diren ordainketa zatikatuak abenduaren 3ko 635/2014 Foru Aginduaren bidez arautu dira. Izan ere, agindu horretan prozedurak ezarri ziren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ordainketa zatikatuak egiteko, eta bi eredu onartu ziren: ordainketa zatikatua autolikidatzeko 130 eredu eta ordainketa hori helbideratzeko 005 eredu.

130 ereduaren kudeaketak urte hauetan eman digun esperientzian oinarrituta, komenigarri ikusi da beste bi eremu sartzea ereduaren, zehazki, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren sekzioari eta epigrafeari dagozkienak.

Gainera, kontuan izanik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuak, seigarren xedapen iragankorren jasotzen zuen araubidea dagoeneko ez dagoela indarrean (xedapen horretan araubide iragankor bat ezartzen zen zenbatespen objektiboaren metodoa aplikagarri zuten zergadun jakin batzuentzat), eta, behin desagerturik, horren ondorioz, xedapenaren 5. apartatuan aurreikusitako aukera, alegia, arau orokorren arabera kalkulaturako ordainketa zatikatuak murriztea, bidezkoa da 130 eredutik «Murriztapena» eremua ezabatzea.

Aldi berean, aukera aprobeztatzen da ereduaren aurkezpena eta prestaketa «Zergabidea» sistema berriaren funtzionamendura egokitzeko. Izan ere, Ogasun eta Finantza Departamentua plataforma hori ezartzen ari da pixkanaka-pixkanaka, eredu guztiak elektronikoki aurkeztu daitezela. Alde horretatik, azpimarratu behar da 130 eredu formulario bidez aurkeztea desagertzen dela, eta kontuan izanik sistema berria apurka-apurka ezartzen ari dela eta 005 eredu ez dela oraindik integratuko sistema horretan, foru aginduari xedapen iragankor bat gehitzen zaio esateko ezen 005 eredu plataforma berrian sartzen ez den bitartean Internet bidezko aurkezpena «Gipuzkoataria» tramite eta zerbitzu telematikoen atariaren bitartez egin behar dela, horretarako eskura dagoen zerbitzua erabiliz.

Bukatzeko, eguneratu egiten dira ereduaren foru aginduan Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duen foru aginduari egiten zaizkion aipamenak, obligazio hori ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduan arautzen baita gaur egun.

Hortaz, foru agindu honen xedea da 130 eta 005 ereduaren aurkezpena aldaketa horietara egokitzea.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

## I. KAPITULUA

### ORDAINKETA ZATIKATUAK EGITEARI BURUZKO OHAR OROKORRAK

*1. artikulua. Ordainketa zatikatuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen egiteko prozedurak.*

*Bat.* Hurrengo 2. artikuluan jasotakoarengatik ordainketa zatikatuak egitera behartuta dauden pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek prozedura hauetako bati jarraituz bete ahal izango dute obligazio hori, izaera orokorrez eta artikulua honetako bigarren eta hirugarren apartatuetan xedatutakoa eragotzi gabe:

a) Foru agindu honen bidez onartutako 130 erdua aurkeztuz, eta emaitza gisa ateratzen zenbatekoa ordainduz.

b) Ordainketa zatikatuen helbideratze iraunkorraren bidez, foru agindu honetan onartzen den 005 erdua aurkeztuta. Zergadunaren titulartasuneko kontu batean helbideratu behar da ordainketa, eta kontuak zerga-bilketa kudeatzeko entitate laguntzaile batean egon behar du irekita.

Ordainketa zatikatuak modu iraunkorrean helbideratzea aukeratzen duten zergadunek ez dute aurkeztu behar 130 erdua horiei dagokienez.

*Bi.* Lehen apartatuan xedatutakoa gorabehera, aurreko b) letran aurreikusitako prozedura zergadun hauek baino ezingo dute erabili: jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek, baldin eta ordainketa zatikatua egin baino bi urte lehenago jarduera horien etekin garbia positiboa izan bada eta indarrean dagoen araudiak berezizat jotzen dituen egoeretako batean ez badaude. Egoera horiek dira:

a) Jarduera hastea edo aldatzea.

b) Denboraldiko jarduerak egitea.

*Hiru.* Denboraldiko jardueretan, jarduera hasi edo aldatzen den kasuetan, ordainketa zatikatuak egin baino bi urte lehenago jarduerarik garatu ez denean edota, bestela, jarduera horien etekin garbia positiboa izan ez denean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagozkion ordainketa zatikatuak aurreko lehen apartatuko a) letran jasotako prozedurari jarraituz bakarrik egin ahal izango dira.

*2. artikulua. Ordainketa zatikatuak egitera behartuak.*

*Bat.* Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak daude behartuta ordainketa zatikatuak egitera, zerga horren konturako ordainketa gisa. Ordainketa zatikatuak hiru hilean behin egingo dira.

Obligazio horren indarrez, aipatutako zergadunek Foru Aldundian autolikidatu eta ordaindu behar dituzte urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 121. artikuluan eta haren hurrengoetan ezarritakotik ondorioztatzen diren kopuruak. Artikulu horietan xedatutakoa aplikatuta ez bada ordaintzeko zenbatekorik ateratzen, zergadunek ez dute aitorpenik aurkeztu behar.

*Bi.* Aurreko lehen apartatuko lehen paragrafoan jasotakoa gorabehera, nekazaritza, abeltzaintza edo baso jarduerak egiten dituzten zergadunek ez dute haiengatik ordainketa zatikaturik egin behar, baldin eta aurreko urte naturalean jarduerak eman dituen sarrerengutxienez % 70ak atxikipena edo konturako sarrera izan badu. Kanpoan geratzen dira dirulaguntza arruntak edo kapitalekoak eta kalte-ordainak.

Orobat, jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunek ere ez dute haiengatik ordainketa zatikaturik egin behar, baldin eta aurreko urte naturalean jarduerak eman dituen sarrerengutxienez % 50ak atxikipena edo konturako sarrera izan badu.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduerari hasiera ematen zaion kasuetan, kontuan hartuko da sarrerengutxienez zer portzentajek izan duen atxikipena edo konturako sarrera ordainketa zatikatuari dagokion epealdian.

*Hiru.* Autolikidazioak emaitza negatiboa duenean, ez da egingo ordainketa zatikaturik.

## II. KAPITULUA

### ORDAINKETA ZATIKATUAK 130 EREDUAREN BIDEZ EGITEA

#### *3. artikulua. 130 eredu onartzea.*

*Bat.* Onarturik geratzen da «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatuak. Autolikidazioa» izeneko 130 eredu, foru agindu honetan I. eranskin gisa jasotzen dena.

*Bi.* Onarturik geratzen dira 130 ereduaren aitorpenek bitarteko elektronikoz aurkezteko bete behar dituzten diseinu logikoak, foru agindu honetan II. eranskin gisa jasotzen direnak.

#### *4. artikulua. Aurkezpen moduak.*

*Bat.* Modu hauek erabili daitezke 130 eredu aurkezteko:

a) Bitarteko elektronikoa. Aurkezpen elektronikoa internet bidez egingo da, «Zergabidea» sistema erabiliz, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera.

Transmititzen den fitxategi elektronikoa foru agindu honen II. eranskinean jasota dauden diseinu logikoak bete beharko ditu.

Fitxategi elektronikoki hori prestatzeko, «Zergabidea» sistema erabili ahal izango da, baina horrek ez du kentzen beste programa informatiko batzuk ere erabiltzea haiekin lortzen den fitxategiaren formatua foru agindu honen II. eranskinean jasotakoaren berdina bada.

b) Paperezko euskarria, foru agindu honen I. eranskinean jasotako diseinuaren arabera. Euskarriak bi ale ditu: Administrazioaren alea eta interesdunarena.

Bi modutan eskuratu ahal izango dute interesdunek paperezko euskarria: eredu PDF formatuan inprimatuz Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik (<http://www.gipuzkoa.eus>) eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik (<http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>), edo, bestela, «Zergabidea» sistematik zuzenean, betiere eredu bete eta gero.

*Bi.* 130 eredu banaka zein taldeka aurkez daiteke Internet bidez. Lehen kasuan, datuak bil-tzen dituen artxiboak aitortzaile baten datuak jasoko ditu, eta bigarrenean, aitortzaile batenak baino gehiagorenak.

*Hiru.* Internet bidez aurkeztutako 130 ereduak aldatu, zuzendu edo baliogabetu nahi badira foru agindu honen 5. artikuluan aipatutako epea amaitu aurretik, Internet bidez egin beharko da beti.

#### *5. artikulua. Aurkezteko eta ordaintzeko epea.*

130 ereduaren aurkezpena eta dagokion ordainketa zatikatua hiru hilean behin egin behar dira, epe hauen barruan:

— Lehen hiruhilekoaren autolikidazioa: apirilaren 1etik maiatzaren 10era.

— Bigarren hiruhilekoaren autolikidazioa: uztailaren 1etik abuztuaren 10era.

— Hirugarren hiruhilekoaren autolikidazioa: urriaren 1etik azaroaren 10era.

— Laugarren hiruhilekoaren autolikidazioa: hurrengo urteko urtarrilaren 1etik otsailaren 10era.

Epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo lehen egun baliogabea luzatuko da.

#### *6. artikulua. 130 eredu paperean aurkezteko eta zorra ordaintzeko tokia.*

Papera erabiliz gero, 130 ereduaren aurkezpena eta dagokion ordainketa zatikatua Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitate laguntzaileetako batean egingo dira (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan).

#### *7. artikulua. Internet bidez aurkeztutako 130 eredu ordaintzeko era.*

130 eredu Internet bidez aurkeztuz gero, autolikidazioei dagozkien ordainketak hiru modutan egin ahal izango dira: bankuan helbideratuta, ordainketa-pasabidea erabiliz, edo entitate laguntzailean ordainketa-gutuna aurkeztuz, hori guztia, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoki erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, 4. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

## III. KAPITULUA

## ORDAINKETA ZATIKATUAK 005 EREDUAREN BIDEZ EGITEA

*8. artikulua. Ordainketa zatikatuak helbideratze iraunkor bidez ordaintzeko 005 eredia eta ordainketa-prozedura onartzea.*

*Bat.* Onarturik geratzen da «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek egiten dituzten jarduera ekonomikoen ordainketa zatikatuaren helbideratze iraunkorra» izeneko 005 eredia, foru agindu honetan III. eranskin gisa jasotzen dena.

*Bi.*

1. Ordainketa zatikatuen helbideratze iraunkorra aukeratzen duten zergadunek alta eskaera aurkeztu behar diote Ogasun eta Finantza Departamentuari, aurreko lehen apartatuan onartutako 005 eredia dela medio.

2. Behin helbideratzea eskatuta, Ogasun eta Finantza Departamentuak egiaztatuko du eskaera aurkeztu duen zergadunak foru agindu honetan aipatu doren beharkizunak betetzen dituela ordainketa zatikatuen prozedurarekin aurrera jarraitzeko.

Zergadunak ez baditu betetzen beharkizun horiek, eskaera errefusatu egingo da, eta zergadunari hala jakinaraziko zaio eskaera jaso eta hilabeteko epean.

Aipatutako epea igaro eta zergadunari ez bazaio jakinarazi eskaera errefusatu zaionik, zergadunak tazituki onartutzat hartu ahal izango du bere eskaera.

3. Eskaera onartutakoan, honela jokatu du Ogasun eta Finantza Departamentuak:

1.a.— Bere esku dituen datuak erabilia, egiaztatu ahal izango du zergadunak eredian adierazi duen ordainketa zatikatuaren zenbatekoa badela, gutxienez, araudian aurreikusitakoa.

2.a.— Eredua aurkezten den ekitaldian, eta hiru hilean behingo maiztasunarekin, Ogasunak bi zenbateko hauetako bat kargatuko du propio aukeratutako kontuan: zergadunak adierazitako ordainketa zatikatuaren zenbatekoa edo, kasua bada, Ogasunak egiaztatutakoa.

3.a.— Hurrengo ekitaldietan, eta zergadunak baja komunikatzen ez duen bitartean, berak aukeratutako kontuan kargatuko da, aurreko 2. zenbakian adierazitako epeetan, legez aurreikusitako ordainketa zatikatuaren zenbatekoa, salbu eta 005 eredian zenbateko handiagoa jarri bada.

Zergadunak nahiago badu ekitaldian zenbateko handiagoa kargatzea, Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinarazi beharko dio 005 eredia dela medio.

Komunikazio horrek eragina izan dezan dagokion hiruhilekoan eta hurrengoetan, foru agindu honen 10. artikuluan aurreikusitako epe berberetan aurkeztu beharko da 005 eredia.

4.a.— Zenbatekoa kontuan kargatutakoan, finantza entitate laguntzaileak ordainketa zatikatu egin izanaren frogagiria bidaliko dio zergadunari, gutxienez honako datuok adierazita:

— Ekitaldia.

— Hiruhilekoa.

— Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa.

4. Ordainketa ezin bada kontuan kargatu saldoa nahikoa ez izateagatik edo bestelako kausak egoteagatik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 30. artikuluan xedatutako eran, kontuan ezin kargatze hori ordainketa zatikatua ez egitearekin parekatuko da ondorio guztietarako.

5. Helbideratze iraunkorraren banku kontua aldatzeko, ordainketa zatikatuen helbideratze iraunkorra erabiltzeari uzteko, edo jardueraren aldaketa egiteko, bidezko komunikazioa helarazi beharko zaio Ogasun eta Finantza Departamentuari 005 eredia dela medio.

Komunikazio horrek eragina izan dezan dagokion hiruhilekoan eta hurrengoetan, foru agindu honen 10. artikuluan aurreikusitako epe berberetan aurkeztu beharko da 005 eredia.

6. Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuaren mende dagoen «Helbideratze Iraunkorren Erroldak» gertatu diren altak, aldaketak eta bajak jasoko ditu, eta haren bitartez posible izango da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek modu iraunkorrean helbideratutako ordainketa zatikatuen segimendua egitea.

#### *9. artikulua. 005 eredia aurkezteko moduak.*

Modu hauek erabili daitezke 005 eredia aurkezteko:

a) Bitarteko elektronikoak. Aurkezpen elektronikoa internet bidez egingo da, «Zergabidea» sistema erabiliz, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera.

Fitxategi elektronikoa betetzeko, «Zergabidea» sistema erabiliko da.

b) Paperezko euskarria, foru agindu honen III. eranskinean jasotako diseinuaren arabera. Euskarriak bi ale ditu: Administrazioaren alea eta interesdunarena.

Bi modutan eskuratu ahal izango dute interesdunek paperezko euskarria: eredia PDF formatuan inprimatuz Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik (<http://www.gipuzkoa.eus>) eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik (<http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>), edo, bestela, «Zergabidea» sistematik zuzenean, betiere eredia bete eta gero.

#### *10. artikulua. 005 eredia aurkezteko epea.*

Helbideratze iraunkorraren eskaerak eragina izan dezan dagokion hiruhilekoan eta hurrengoetan, epe hauetan aurkeztu behar da 005 eredia:

— Lehen hiruhilekoaren ordainketa zatikatua: apirilaren 10a baino lehen.

— Bigarren hiruhilekoaren ordainketa zatikatua: uztailaren 10a baino lehen.

— Hirugarren hiruhilekoaren ordainketa zatikatua: urriaren 10a baino lehen.

— Laugarren hiruhilekoaren ordainketa zatikatua: urtarrilaren 10a baino lehen.

*11. artikulua. 005 eredia paperean aurkezteko tokia.*

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Herritarren Arretarako bulegoetan aurkeztu behar da 005 eredia.

*Xedepen iragankor bakarra. 005 eredia elektronikoki aurkezteko araubide iragankorra.*

005 eredia «Zergabidea» sistemaren bidez aurkezteko aukera gaitzen ez den bitartean, ereduaren Internet bidezko aurkezpen elektronikoa egiteko beharrezkoa izango da foru agindu honen 9. artikuluko b) letran aipatutako PDFa betetzea eta haren fitxategia «Gipuzkoataria» tramite eta zerbitzu telematikoen ataritik bidaltzea, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, jasotakoarekin bat.

*Xedapen indargabetzaile bakarra.*

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetuta geratzen dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta bereziki, 635/2014 Foru Agindua, abenduaren 3koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ordainketa zatikatuak egiteko prozedurak ezarri, eta ordainketa zatikatuak autolikidatzeko 130 eredia eta ordainketa horiek helbideratzeko 005 eredia onartzen dituena.

*Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea eta aplikatzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2018ko lehenengo hiruhilekoari dagozkion ordainketa zatikatuetarako aplikatuko da lehenengo aldiz.

Donostia, 2018ko martxoaren 15a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(1972)

I. ERANSKINA



II. ERANSKINA

## ERREGISTROAREN DISEINUA

*Oharrak:*

a) Erregistro guztiak irizpide hauei jarraiki grabatuko dira:

— Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiek ezkerredera egon behar dute jarrita, eta eskuinaldetik zurienez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

— Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balioa izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula), berriz, 199 ASCII balioa (Hex. C7).

— Eremu numerikoak eskuinaldera lerrokatuta eta ezkerraldean zeroz beteta agertuko dira, enpaketatu gabe.

— Zenbatekoen eremu guztietan, kopuruak euro zentimotan agertu behar dira. Beraz, zenbatekoek inoiz ez dute zenbaki hamartarrik izango.

— Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu guztiek izango dute edukia. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetiko/alfanumerikoak zuriunez joango dira.

b) «Erregistroaren kodea» eremuan beti 01 balorea jarriko da.

c) «Epealdia» eremua jarraian adierazten den eran beteko da:

<u>Epealdia</u>	<u>Balorea</u>
1. hiruhilekoa	01
2. hiruhilekoa	02
3. hiruhilekoa	03
4. hiruhilekoa	04

130 EREDUA / MODELOS 130

<i>Azalpena</i>	<i>Descripción</i>	<i>Datu mot. T. dat</i>	<i>Luzer. Long.</i>	<i>Leh. pos. Pos. ini.</i>	<i>Azk. pos. Pos. fin.</i>
Aurkezlearen IFZ	NIF Presentador	Alfn	9	1	9
Aitortzailearen IFZ	NIF Declarante	Alfn	9	10	18
Ekitaldia	Ejercicio	Num	4	19	22
Eredua	Modelo	Num	3	23	25
Epealdia	Período	Num	2	26	27
Erregistroaren kodea	Código registro	Num	2	28	29
Bezeroaren kontu kodea	Código Cuenta Cliente	Num	20	30	49
IBAN kontu kodearen lehen lau posizioak (ESXX)	Cuatro primeras posiciones del código de cuenta IBAN (ESXX)	Alfn	4	50	53
JEZaren sekzioa	Sección IAE	Num	1	54	54
JEZaren epigrafea	Epígrafe IAE	Num	6	55	60
Errenten esleipena: entitatearen IFZ	Atribución de rentas: NIF de la entidad	Alfn	9	61	69
Errenten esleipena: entitatearen izena	Atribución de rentas: Nombre de la entidad	Alfn	40	70	109
Izaera orokorrez	Con Carácter General				
Bi urte lehenago izandako etekina	Rendimiento del penúltimo año anterior	Num	13	110	122
100eko 5	5 por 100	Num	13	123	135
Bi urte lehenago izandako etekinaren % 25eko murrizketa	Minoración del 25 % del penúltimo año anterior	Num	13	136	148
Ordainketa zatikatua, guztira	Total Pago Fraccionado	Num	13	149	161



<i>Azalpena</i>	<i>Descripción</i>	<i>Datu mot. T. dat</i>	<i>Luzer. Long.</i>	<i>Leh. pos. Pos. ini.</i>	<i>Azk. pos. Pos. fin.</i>
Aparteko egoeretan	Con carácter Excepcional				
Hiruhilekoan izandako eragiketa bolumena	Volumen de operaciones del Trimestre	Num	13	162	174
100eko 1	1 por 100	Num	13	175	187
Hiruhileko atxikipenen murrizketa	Minoración retenciones del trimestre	Num	13	188	200
Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa	Importe del Pago Fraccionado				
Oinarrizko zenbatekoa	Importe base	Num	13	201	213
Zenbait titularkide: portzentajea	Varios cotitulares: porcentaje	Num	4	214	217
Zenbait titularkide: egozpena	Varios cotitulares: Imputación	Num	13	218	230
Bestelako doikuntzak	Otros ajustes	Num	13	231	243
Ordaindu beharrekoa, guztira	Total a Ingresar	Num	13	244	256

## III. ERANSKINA

